



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 9a

5. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2014ko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2014ko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2014ko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2014ko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Lanaren helburuak eta norainokoa (4. or.).
- III.** Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (5. or.).

III.1. Antolamenduzko egitura (5. or.).

III.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege-neurriak (7. or.).

III.3. Araudia (8 or.).

**IV.** Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-oroitidazkia (9. or.).

**V.** Toki sektore publikoaren finantza-egoera (11. or.).

V.1. Diru-sarrerak (11. or.).

V.2. Gastuak (12. or.).

V.3. Finantza-egoera (13. or.).

**VI.** Kontratazio administratiboa (14. or.).

**VII.** Nafarroako Foru Komunitateko toki entitate garrantzitsuenei aplikatzekoak zaizkien akordio eta hitzarmen kolektiboen azterketa juridikoa (16. or.).

**VIII.** Ondorioak eta gomendioak (19. or.).

1. eranskina Toki entitateei 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaien araudia (22. or.).

2. eranskina. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoera 2014an (CD).

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

## **I. SARRERA**

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Izan ere, lege horretako 350.2 artikulua ezartzen duenez, Kontuen Ganberak urtero igorriko die laburpen-oroitidazki bat Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, Nafarroako toki entitateen arloan Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio- eta kontrol-jarduerei buruzkoa.

Lana urrian egin zuen kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

2104ko ekitaldiari buruzko txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onesteko eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. LANAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lanaren helburuak hauexek dira:

- Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio eta kontrol jardueren 2014ko ekitaldiko laburpen-oroitidazkia aurkeztea.
- Nafarroako toki entitateen 2014ko finantza egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.
- Nafarroako Foru Komunitateko toki entitate garrantzitsuenetako langileei aplikatzekoak zaizkien akordio eta hitzarmen kolektiboak aztertzea.
- Toki entitate horien kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.

Nafarroako toki entitateen 2014ko ekitaldiko kontabilitate-informazioa da lanaren norainokoa. Ondokoak dira informazio horren osagaiak:

- Udalen kontuak nahiz haren erakunde autonomoen informazioa.
- Kontzeju, mankomunitate eta batasun tradizionalen informazioa.
- Merkataritzako elkarteen informazioa, horien kapitala oso-osorik toki entitateena bada.
- Honako udal hauek osatutako toki entitateen lagin bati aplikatzekoak zaizkien hitzarmen eta akordio kolektiboak: Iruña, Tuter, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Eguesibarra.

Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak gaiari buruz egindako eta Ganbera honi igorritako txostenean oinarritzen dira toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko ondorioak.

Finantza-egoerari buruzko azterketan, hurrengo entitateak ez dira kontuan hartu, zeren eta Toki Administrazioari buruzko txostena egiteko garaian (2016ko iraila) Foru Administrazioari 2014ko kontu orokorra igorri gabe baitzeuden:

- 272 udaletatik, bi: Biurrun/Olkotz eta Esa. Udal horiek 446 biztanle dituzte guztira; horrek populazio osoaren ehuneko 0,1 egiten du.
- 347 kontzejuetatik 44: Aizpun, Amillao, Antxoritz, Aramendia, Arbontze, Arlegi, Arraitza, Arruitz, Artatza, Arteta, Beasoain-Egillor, Beruete, Biurrun, Ekala, Etxague, Erro, Etxaleku, Etxarri, Gazolatz, Gollao, Goñi, Gorrontz-Olano, Iltzarbe, Jauntsarats, Lapoblación, Larraiotz, Lizarragabengoa, Lizasoain, Lotza, Olaitz, Olabe, Olatz, Olkotz, Oloritz, Oskotz, San Martin Ameskoa, Sarasibar, Senosiain, Sorauren, Undio, Untzu, Billabeta, Zabal eta Zarikiegi. Kontzeju horien populazioa 3.892 pertsonakoa da, eta Nafarroako kontzejuen guztizko populazioaren ehuneko hamar egiten du.
- 19 batasunetatik bat, Faltzes eta Miranda Arga Udalerrien Administrazio Zerbitzuetarako Batasuna.
- Jarduera duten 60 mankomunitateetatik lau: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Araxes Garaiko Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitatea eta Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

### III. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

#### III.1. ANTOLAMENDUZKO EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarrizko toki entitateak. Toki entitatearen mailakoak dira, halaber:

- Kontzejuak: udalaren dermioaren barrenean kokaturiko toki entitateak dira, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.
- Herri-ondasunen titular edo administratzaile diren korporazio tradizionalak. Bardeako Elkartea, Aezkoako Elkartea, Erronkaribarko Mankomunitatea eta Zaraitzuko Unibertsitatea eta gaineko udalbatzak.
- Mankomunitate edo zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- Udal-batasunak, dituzten ezaugarriengatik eskatzen dutenak zerbitzu komunak ematea.
- Administrazio-barrutiak, 5.000 biztanlera iristen ez diren landa inguruneko udalek borondatez osatutakoak.

• Tokiko partzuergoa: 2014ko abenduan, 23/2014 Foru Legeak Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea aldatu zuen, eta tokiko partzuergoak beste toki entitate baten gisara jaso zituen. Zehazki, tokiko partzuergotzat hartuko dira izaera desberdineko administrazio publikoen artean boluntarioki sortutako elkarteak, soilik udal eskumeneko nahitaezko zerbitzuak emateko, zerbitzu horien konplexutasun teknikoa eta tamaina ekonomikoa direla-eta beharrezkoak direnean Nafarroako Lurralde Estrategiaren eskualdeak baino handiagoak diren jardute-esparruak.

Honakoa da toki entitateen kopurua, 2014ko abenduaren 31n, aurreko urteetako toki entitateen kopuruarekin alderatuta:

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Udalak	272	272	272	272	272	272 <sup>(1)</sup>
Kontzejuak	350	351	348	348	348	347 <sup>(2)</sup>
Mankomunitateak	65	66	66	65	65	65 <sup>(3)</sup>
Tradiziozko batasunak eta udal batasunak	17	18	18	18	18	19 <sup>(4)</sup>
<b>Guztira</b>	<b>704</b>	<b>707</b>	<b>704</b>	<b>703</b>	<b>703</b>	<b>703</b>

(1) 60 udal konposatuak dira.

(2) 2014ko apirilaren 1ean, Noain-Elortzibar udalerriko Zulueta Kontzejuak azkendu zen.

(3) Bost mankomunitatek ez dute jarduerarik.

(4) Artzibar, Orotz-Betelu eta Longidako Udalen Batasunak 2016an eman zuen alta Toki Entitateen Erregistroan, baina 2014tik existitzen zen; aintzat hartu dugu, horrenbestez.

2009tik 2014ra doan aldian, honakoak dira toki entitateen menpeko erakundeak (erakunde autonomoak eta enpresa publikoak), tokiko fundazio publikoak eta partzuergoak:

Entitatea	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Erakunde autonomoak	67	67	66	66	66	65
Enpresa publikoak	41	42	45	48	50	54
Fundazio publikoak	9	9	9	9	9	9
Partzuergoak	15	17	16	16	16	15*
<b>Guztira</b>	<b>132</b>	<b>135</b>	<b>136</b>	<b>139</b>	<b>141</b>	<b>143</b>

\*Dauden partzuergo guztiak sartu ditugu, zeren eta bakarra ere ez baita tokiko gisa sailkatu txosten hau idazteko datan.

2014an, 2013arekin alderatuta, honako hauek desagertu ziren: Garesko Udaleko Lurzoruaren Udal Ondarea erakunde autonomoa; Berriobeitiko Gestión Urbanística Berrioplano SL udal sozietate

tatea, eta Bertizko Turismo Partzuergoa. Bestetik, honako sozietate hauek jaso ziren lehenengo aldiz Toki Entitateen Erregistroan: Gastizun Udal Sozietatea, Aiegiko Udalaren kirol instalazioak kudeatzeko; Panificadora Harinera Echalar SL; Lesaka Oilartegi SL; Zugarramurdiko Garapena SL, eta Lekunberriko Aralar Irratia S.L.

Hona Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2014ko abenduaren 31n:



2014ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako 272 udalerrien biztanleria, errolda ofizialeko datuen arabera, 640.790 biztanlekoa, honela zegoen banatuta:

Biztanleria-tartea	Udal kopurua	Udalerriak guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria	% biztanleria guztizkoari buruz (%)
<100	40	15	2.510	0,4
100-199	53	19	7.583	1,2
200-499	59	22	19.216	3,0
500-999	34	13	24.311	3,8
1.000-1.999	25	9	33.375	5,2
2.000-2.999	24	9	59.538	9,3
3.000-4.999	15	6	57.341	8,9
5.000-9.999	12	4	87.993	13,7
10.000-24.999	8	3	117.695	18,4
25.000-50.000	1	0,4	35.062	5,5
50.000 baino gehiago	1	0,4	196.166	30,6
<b>Guztira</b>	<b>272</b>	<b>100</b>	<b>640.790</b>	<b>100</b>

Nafarroako udalen ehuneko 68,4k (186 udalerrri) 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Nafarroako biztanleen ehuneko 55 Iruñerrian daude eta guztizkoaren ehuneko 30,6 Iruñean bizi dira.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi bezala, biztanle-kopuru txikiak ditzuten giza baliabide eta finantza-baliabide mugatuak dituzte eta ez dute administrazio-egitura egokia eta nahikoa beren eskumenak kudeatzeko, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuak merke, eraginkortasunez eta kalitatez ematea.

### III.2. TOKI SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO PLANTEATU DIREN LEGE-NEURRIAK

2012ko urriaren 24an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru lege proiektua onetsi zuen, honako helburu hauekin: udal zerbitzuen kudeaketa ekonomikoa eta prestazioa arrazionalizatzea eta hobetzea; ahal den berdintasun handiena lortzea herritarrek zerbitzuak jasotzeko dagokionez, eta Nafarroako Toki Administrazioaren mapa administratibo eta funtzionala lurraldearen ikuspuntutik antolatzea.

Honakoak dira helburu horiek lortzeko proposatutako neurrietako batzuk:

- Udalak beren borondatez batu daitezen eta zerbitzuak emateko udalen arteko egituretan sar daitezen sustatzea.
- Zerbitzu administratiboen batasunak sortzea, idazkaritza eta kontu-hartzailatza eginkizunak bete ditzaten.
- Interes orokorreko sei mankomunitate sortzea, egun daudenak biltzeko.
- Kontzejuei eustea, honako berezitasun hauekin. Kontzejuak azkenduko dira, beste arrazoi batzuen artean, 1.000 biztanletik gorako kontzeju bateko populazioa kide den udal osokoa baino handiagoa denean; hauteskunde-prozesuetan hautagai-zerrendarik aurkezten ez denean; bete-behar administratiboak betetzen ez dituztenean; eta 16 biztanle baino gutxiago dituztenean. Ezin izanen da kontzeju berririk sortu.
- Dauden 11 batasun tradizionalak lura murriztuko dira.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2013ko irailaren 19an, Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatzeko oinarriak ezarri zituen Foru Lege proposamena onetsi zuen. Bertan, honako entitateak jasotzen dira, besteak beste: administrazio-barrutiak, interes orokorreko mankomunitateak eta Iruñeko metropolialdea.

Bi legegintza-proposamen horiek aurreikuspen bat biltzen dute: toki entitateak finantzatzeko eredu berri bat onestea.

Bai Gobernuak 2012an onetsitako lege proiektuak, bai Parlamentuak 2013an onetsitako lege proposamena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak 2013ko urriaren 29an onetsitako parlamentu-lantaldean eztabaidatu ziren.

2014ko ekainaren 13an, Parlamentuak erabaki zuen lantaldearen jarduna sei hilabetez luzatzea. Izan ere, aurreikusitakoaren arabera, 2014ko ekainaren 16an amaitu behar zituen bere lanak. Lantalde hori akordiorik lortu gabe bukatu zen; hortaz, txosten hau idazteko egunean, onetsi gabe jarraitzen du Nafarroako toki entitateak berrantolatzeko foru legeak.

2013ko abenduaren 31n hartu zuen indarra Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak. Lege horren bigarren xedapen gehigarriak Nafarroako Foru Komunitateari aplikatzekoak zaizkion berezitasun batzuk arautzen ditu, zerbitzuak emateko moduari dagokionez eta toki entitatei eskumenak esleitzeari dagokionez.

2014ko abenduaren 2an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen 23/2014 Foru Legea onetsi zuen. Foru lege horren xedea da Nafarroako toki entitateen eskumenak mantentzea, eskumen jakin batzuk direla-eta behin-behineko gaiak ezartzea, tokiko berregituratzeari ekiten ez zaion bitartean, eta udal-esparruko beste arlo batzuk, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak uki ditzakeenak, arautzea. Lege horrek, dena den, ez ditu jorratzen toki entitateen berrantolamenduaren alderdirik garrantzitsuenak.

2016ko otsailean, Gobernuak parte-hartze prozesu bat abiatu zuen Nafarroako Toki Administrazioaren antolaketa berria definitzeko. Prozesu horretan honako hauek hartuko dute parte: Gobernuak berak, Toki Administrazioeko Zuzendaritza eragile koordinatzaile gisa erabilia; toki entitateak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eragile koordinatzaile gisa erabilia; parlamentu-taldeak; arloko zenbait adituk eta aholkulariak; esparruan eskarmentuan duten funtzionarioak, eta beste lurralde-eragile batzuek.

Zehazki, hiru lantalde ezarri dira, bi urtez nagusiki tokiko eskumenekin, tokiko maparekin eta toki entitateen finantzaketarekin lotutako gaiak landuko dituztenak. Epe hori iraganda, Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazioari Departamentuaren bitartez, behar diren legegintza-proposamenak eginen ditu, Parlamentuak 2018an haiek gauzatu ahal ditzan.

### III.3. ARAUDIA

Ondoko lege- eta erregelamendu-xedapenak dira, funtsean, Nafarroako toki entitateek 2014an bete behar duten oinarritzko araudia:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak denak, aurrekontuei eta gastu publikoari, aurrekontuen egiturari, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzioari eta Kontabilitate Bakunari dagokiena, hurrenez hurren.

Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduaz onetsitakoa. (272/1998 FD 425 Araua, Kontularitzako Instrukzio orokorra).

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaz aldatu zen)

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.

2014ko aurrekontua betetzeko oinarriak

Oinarritzko legedi horrekin batera, toki entitateetan eragina dute bai aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legediak, bai kudeaketa-arlo desberdinetan (kontratazioa, diru-laguntzak, ordenantza fiskalak eta abar) aplikatzekoa den legedi sektoria-lak ere. Txosten honen I. eranskinean, araudi hori kontsulta daiteke xehetasunez.



#### IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-OROTIDAZKIA

Nafarroako Kontuen Ganberak ondoko 15 toki entitateen 2014ko kontu orokorraren finantzen eta legezkotasunaren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin zuen: Antsoain, Aranguren, Barañain, Baztan, Berriozar, Burlata, Paternaingo Kontzejua, Eguesibarra, Lizarra, Los Arcos, Iruña, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Ondoren, aurreko toki entitateei buruzko datu batzuk emanen ditugu:

Udalerria	Txostenaren data	Biztanleak 14-01-01eko erordaren arabera	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n	Menpeko entitateak			
						EEAA	Enpresa	Fundazioa	Enpresa-ente publikoa
Antsoain	2016/02/04	10.861	6.799.721	7.689.219	70	1			
Aranguren	2015/11/19	8.982	11.482.590	11.868.818	66				
Barañain	2015/11/12	20.458	15.123.908	18.452.397	154	2		1	
Baztan	2016/05/31	7.848	8.267.195	8.177.606	141	2	1		
Berriozar	2016/03/22	9.625	6.193.419	6.050.629	101		1		
Burlata	2016/03/11	18.237	14.832.533	15.140.802	211	2	3		
Paternaingo Kontzejua	2016/04/28	357	59.364	48.992	0				
Eguesibarra	2015/12/22	19.014	9.469.895	10.327.905	122		2		
Lizarra	2016/03/18	13.695	10.791.242	11.552.921	150	1	1		
Los Arcos	2016/03/02	1.167	1.965.578	2.155.721	9				
Iruña	2015/11/10	196.166	192.190.702	193.918.711	1616	2	5	1	
Tafalla	2016/03/16	10.966	10.228.677	10.560.840	161	3	1		
Tutera	2015/10/02	35.062	34.934.881	35.582.840	329	1		2	1
Atarrabia	2016/03/21	10.211	7.347.571	8.237.062	107				
Zizur Nagusia	2016/03/22	14.253	12.474.725	10.755.287	119	3			
<b>Fiskalizatutako udalerriak, guztira</b>		<b>376.902</b>	<b>342.162.001</b>	<b>350.519.750</b>	<b>3.356</b>	<b>17</b>	<b>14</b>	<b>4</b>	<b>1</b>

Fiskalizatutako entitateen diru-sarrerek Nafarroako toki sektore publikoaren diru-sarrera guztien ehuneko 47 egiten dute, eta gastuek, berriz, ehuneko 48.

Honako hauek dira udalerrri horien menpeko enteak: 17 erakunde autonomo, 14 enpresa publiko, lau fundazio eta enpresa-ente publiko bat.

Arauzkotasun-fiskalizazioen helburua honako gai hauei buruzko iritzia ematea izan zen:

- Ea toki entitatearen 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusienetan behar bezalako irudia erakusten zuen, 2014ko abenduaren 31n, ondareari, ekonomia- eta finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren esparruan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

- Ea 2014ko ekitaldian legezkotasuna bete ote den.
- Entitate bakoitzaren egoera finantzarioa 2014ko abenduaren 31n.
- Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea.
- Aldiro egindako auditorietan, 2013ko ekitaldiari buruzko txosteneko gomendioen jarraipena.

Fiskalizazioaren emaitzak kasuko txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu ziren.

2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia aldekoa izan zen fiskalizatutako bi entitatetan; gainerako 13etan aldekoa izan zen, baina salbuespenen batekin. Hona salbuespen nagusiak:

- Eguneratu gabeko inbentarioa izatea (9 entitate).
- Ez daude erregistratuta funtzionarioen pentsio-ereduetatik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak (berriazko aurreikuspen-sistema duten 3 entitateak).

Legedia betetzeari dagokionez, 15 entitateetako 13tan aldeko iritzia eman zen eta gainerako bietan iritzia aldekoa izan zen salbuespenekin; kasu batean, salbuespen horiek erreferentzia egi-

ten zioten aurrekontuen arloko kontabilitate-arauak ez betetzeari; beste kasu batean, berriz, zenbait gasturen justifikazio eskasari.

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari dagokionez, 10 entitatek araudiak ezarritako baldintza guztiak bete zituzten; bik finantzaketa-beharrak zeuzkaten baina plan ekonomiko-finantzario bat bazeukaten egoera horri konponbidea emateko; kasu batean, ezin izan zen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatu; beste kasu batean ez ziren ezarritako baldintzak bete, eta, azkenik, entitate batean ezin izan zen eskuratu gaiari buruzko informaziorik.

15 toki entitate horien erregularatasuna fiskalizatzeaz gainera, txosten bat egin zen, non azterketa bat egin baitzen Mendigorriko Udalaren finantza-egoerari buruz, 2014ko ekitaldia barne hartuta.

Azkenik, 2016ko uztailean, Kontuen Ganberak txostena eman zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak 2012-2015 aldian administrazio publikoen langileengan duen eraginari buruz. Txosten horrek honako udal hauetako langileen azterketa jaso zuen: Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Lizarra, Eguesibarra, Iruña, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Ganbera honen gomendio nagusiak honako hauek izan ziren 2014ko fiskalizazio txostenetan:

Aurrekontu orokorra eta kontu orokorra

- *Aurrekontu orokorra kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea (zazpi entitate).*
- *Kontu orokorra hurrengo ekitaldiaren irailaren 1a baino lehen onartzea (lau entitate).*

Ibilgetua eta inbentarioa

*Ondasun eta eskubideen inbentario gaurkotu bat onestea; hura kontrolatu eta artxibatzeako sistema bat ezartzea; eta hura bateratzea kontabilizatutako ibilgetuarekin (hamar entitate).*

Langileak

*Plantillako lanpostu hutsen aldi baterako izaera aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, langileen kontratu egonkorren bidez artatzea Udalaren egiturazkoak diren eta izaera finkoa duten jarduera eta zerbitzuak (zazpi entitate).*

Kontratazio administratiboa

*Kontratuen lizitazio berriak prestatzea aurrekoen muga-egunak kontuan hartuta (hiru entitate).*

Emandako diru-laguntzak

*Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea (bost entitate).*

Aurrekontuko diru-sarrerak

*Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea (lau entitate).*

Hirigintza

- *Plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea (bost entitate).*
- *Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea (bost entitate).*

**V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA**

Toki sektore publikoaren 2014. urteko finantza-egoeraren azterketa Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren txosteneko lehenengo atalean oinarrituta dago. Txosten honen 2. eranskinen gehitu duguna da. Ondoren, toki entitateen (udalak, kontzejuak, mankomunitateak eta batasun tradizionalak) informazio bateratua ematen dugu:

**V.1. DIRU-SARRERAK**

Hona toki sektore publikoaren diru-sarreraren aurrekontu-betetzea:

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Diru-sarrerak (2014)	Diru-sarrera guztien gaitien gainean (%)	Betetakoa (%)	Diru-sarreraren aldea, 2014/13 (%)
1 Zuzeneko zergak	176,74	185,97	24,91	105,22	1,3
2 Zeharkako zergak	17,23	14,20	1,90	82,44	-7,3
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	144,93	148,61	19,90	102,54	2,1
4 Transferentzia arruntak	294,49	295,98	39,64	100,50	0,9
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	48,51	48,86	6,54	100,73	4,9
Diru-sarrera arruntak	681,89	693,62	92,89	101,72	1,4
6 Inbertsioen besterentzea	11,35	7,48	1,00	65,87	-6,8
7 Kapital-transferentziak	71,77	39,66	5,32	55,26	-8,3
Kapitaleko diru-sarrerak	83,12	47,14	6,32	56,71	-8,1
8 Finantza-aktiboen aldaketa	59,82	2,71	0,36	4,54	0,2
9 Finantza-pasiboen aldaketa	16,58	3,22	0,43	19,41	-12,5
Finantza-eragiketarako diru-sarrerak	76,40	5,93	0,79	7,76	-7,2
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>841,41</b>	<b>746,69</b>	<b>100</b>	<b>88,74</b>	<b>0,6</b>

Diru-sarreraren 2014rako behin betiko aurreikuspenek 841,41 milioi euro egiten dute, eta ehuneko 88ko betetze-maila dute. Diru-sarrera arruntaren kasuan aurreikusitakoaren ehuneko 102 bete ziren bitartean, nabarmenezkoa da eragiketa finantzarioetatik heldu diren diru-sarreraren eta kapitalerako diru-sarreraren betetze txikia; izan ere, ehuneko zortzi eta ehuneko 57 bete ziren, hurrenez hurren.

2014ko ekitaldian, toki sektore publikoko entitate guztien diru-sarrerak 746,69 milioi egin zuten; horietatik, ehuneko 93 diru-sarrera arruntak izan ziren, batez ere transferentzia arruntetatik eta zergetatik heldutakoak. Kapitalerako diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko sei dira eta gainerako ehuneko bat finantza-eragiketen bidezko diru-sarreretatik heldu da.

Diru-sarreraren ehuneko 84 udalei dagokie; ehuneko 14 mankomunitateei eta ehuneko bi kontzejuari.

2014ko guztizko diru-sarrerak 2013koen antzeko mailetan mantendu ziren, igoera txiki batekin, ehuneko 0,6koa. Diru-sarrera motaren araberrako aldea askotarikoa izan zen; hartara, diru-sarrera arruntek ehuneko 1,4 egin zuten gora eta kapital- eta finantza-diru-sarrerak, berriz, ehuneko zortzi eta zazpi egin zuten behera, hurrenez hurren.

## V.2. GASTUAK

Hona gastuen laburpen-taula:

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko kredituak	Gastuak (2014)	Gastu guztien gainean (%)	Betetakoa (%)	Gastuen aldea, 2014/13 (%)
1. Langile-gastuak	265,87	256,24	35,6	96,4	-0,1
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	276,50	256,64	35,7	92,8	-0,5
3. Finantza-gastuak	8,26	6,48	0,9	78,5	-13,3
4. Transferentzia arruntak	76,03	70,91	9,9	93,3	3,1
Gastu arruntak	626,67	590,27	82,0	94,2	-0,1
6. Inbertsio errealak	157,09	83,64	11,6	53,2	-6,7
7. Kapital-transferentziak	12,07	10,83	1,5	89,7	16,6
Kapitaleko gastuak	169,16	94,47	13,1	55,8	-4,5
8. Finantza-aktiboen aldea	4,98	2,50	0,3	50,2	-42,1
9. Finantza-pasiboen aldaketak	33,88	32,46	4,5	95,8	6,0
Finantza-eragiketen gastuak	38,86	34,96	4,9	90,0	0,1
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>834,69</b>	<b>719,70</b>	<b>100</b>	<b>86,2</b>	<b>-0,67</b>

2014ko ekitaldirako behin betiko kredituek 834,69 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 86ko betetze-maila izan dute. Gastu arruntek ehuneko 94 betetze maila dute; finantza-eragiketengatiko gastuek, berriz, ehuneko 90ekoa. Aitzitik, kapitaleko diru-sarreraren betetze maila behin betiko kredituen ehuneko 56koa izan zen.

Toki sektore publikoko gastuek 2014an 719,70 milioi euro egin zuten; horietatik, nabarmentzekoak dira ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindakoak, bai eta langileriaren arlokoak ere, zeinek aitortutako gastu guztien ehuneko 35 baino apur bat gehiago egiten baitute. Inbertsioak gastuen guztizkoaren ehuneko 12 dira.

Gastu horien sailkapen funtzionalari erreparatuz gero, ehuneko 15,8 gizarte babesari eta segurantzari dagozkio; ehuneko 14,6, etxebizitzari eta hirigintzari; ehuneko 13,9, erkidegoaren ongizateari; ehuneko 13,2, kulturari eta kirolari; ehuneko 10,8, entitatearen administrazio orokorrari; ehuneko 8,7, hezkuntzari; eta gainerakoa honako sailen artean banatzen da, besteak beste: segurtasun eta babes zibila, finantza-zama eta finantza-administrazioa eta gizarte sustapena. Gastuaren banaketa hori ia 2013ko bera da.

Gastuen ehuneko 84 udalei dagokie, ehuneko 14 mankomunitateei eta ehuneko bi kontzejuei. Ehuneko horiek banatuta daude diru-sarrerak toki entitate horien artean banatzen diren modu bertsuan.

2014an aitortutako gastuak 2013koen berdinak izan ziren ia; izan ere, ekitaldi horrekin alderatuta ehuneko 0,7 jaitsi ziren.

## V.3. FINANTZA-EGOERA

Ondoren, toki entitateen finantza-egoeraren hainbat adierazleren bilakaera erakusten da, 2010etik 2014ra:

Adierazleak	2010	2011	2012	2013	2014	Aldea (%) 2014/10	2014/13 aldea (%)
Diru-sarrerak, guztira	953,24	864,83	785,77	741,93	746,69	-22	0,6
Gastuak, guztira	956,57	841,12	744,4	724,57	719,70	-25	-0,7
Tributu bidezko diru-sarrerak	338,78	347,63	336,92	344,39	348,78	3	1,3
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	393,73	306,7	372,84	336,54	335,64	-15	-0,3
Funtzionamendu gastuak	592,57	594,12	567,81	583,27	583,79	-1	0,1
Inbertsioetan egindako gastua	298,03	191,42	120,51	98,9	94,47	-68	-4,5
Emaitza ez-finantzarioa	-21,10	28,97	48,42	45,89	56,02	-365	22
Aurrezki gordina	79,01	85,49	102,98	100,97	109,83	39	8,8
Finantza-zama	36,59	39,23	39,31	38,08	38,94	6	2,3
Aurrezki garbia	42,42	46,26	63,67	62,89	70,89	67	12,7
Zorpetze-maila	% 5,45	% 5,76	% 5,86	% 5,57	% 5,61	3	0,7
Zorpetze-muga	% 11,77	% 12,56	% 15,35	% 14,76	% 15,83	34	7,2
Zorpetze-ahalmena	% 6,32	% 6,80	% 9,49	% 9,19	% 10,22	62	11,2
Zor bizia	383,51	401,24	400,42	382,45	336,76	-12	-11,9
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	102,46	104,85	132,86	142,27	169,07	65	18,8

2013rekin alderatuta, gastuek behera egin zuten eta diru-sarrerek, berriz, gora; halere, bi kasuetan aldeak txikiak izan ziren. Hala eta guztiz ere, 2010. urtetik izan den bilakaera aipagarria da, zeren eta gastuek eta diru-sarrerek ehuneko 25 eta 22 egin baitute behera, hurrenez hurren.

Inbertsio-gastuek 94,47 milioi euro egin zuten; hori da, hain zuzen ere, 2010arekin eta 2013arekin alderatuz gero gehien jaitsi den gastua: ehuneko 68 eta 4,5.

2014an, toki sektore publikoak baliabide arruntetan 70,89 milioi euroko aurrezki garbia izan zuen, behin funtzionamendu gastuak eta zorraren finantza-zama ordainduta. Aurrezki hori 2013an lortutakoa baino ehuneko 13 handiagoa izan zen. Nabarmenezkoa da 2010arekiko ehuneko 67ko igoera izan zela.

Nafarroako toki entitateek 2014an daukaten zor bizia 336,76 milioi eurokoa zen, ehuneko 1,96ko batez besteko interes tasarekin; batez besteko 12,73 urte gelditzen da epearen muga-eguna iristeko. 2013arekin alderatuta, jaitsiera nabarmena gertatu da, ehuneko 12koa.

Zorpetze-maila, 2014an, diru-sarrera arrunten ehuneko 5,61ekoa zen, eta zorpetze-ahalmena, berriz, ehuneko 10,22ra bitartekoa.

Zorraren ehuneko 91 udalei eta haien erakunde autonomoei dagokie; ehuneko 6,5 mankomunitate eta udal-batasunei, eta gainerakoa kontzejuei.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, aurreko ekitaldietan sortutako baliabideen gaitzina dena, 169,07 milioi euroa izan zen 2014an. 2010eko ekitaldiarekiko eta 2013ko ekitaldiarekiko bilakaera ona izan zen, zeren eta ehuneko 19 eta 65 handitu baitziren, hurrenez hurren.

Azkenik, 2014an, toki sektore publikoak, aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako 29,01 milioi euroko finantzaketa-ahalmena zeukan, kasuko doikuntzak barne, eta bere diru-sarrera arrunten ehuneko 48,55eko zor bizia.

**VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA**

Atal honetan, toki entitateek eta haien menpeko enteek 2014an esleitutako kontratuak aztertzen ditugu, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako Kontratuen Erregistroan dagoen informazioaren arabera.

Hona toki entitateek esleitutako kontratuen oinarrizko datuak:

Kontratu-mota	Udalak		Batasunak		Mankomunitateak		Guztira	
	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Laguntza	128	7.775.437			4	403.600	132	8.179.037
Obrak	124	17.819.599	2	4.563.381	4	3.672.609	130	26.055.589
Hornidura	30	4.385.344			4	130.475	34	4.515.819
Zerbitzu-emakidak	15	2.655.209					15	2.655.209
<b>Guztira</b>	<b>297</b>	<b>32.635.589</b>	<b>2</b>	<b>4.563.381</b>	<b>12</b>	<b>4.206.684</b>	<b>311</b>	<b>41.405.654</b>

2014an, toki entitateek 311 kontratutan guztira 41,41 milioi esleitu zituzten. Kontratuen ehuneko 42 obretakoak izan ziren eta esleitutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 63 egiten dute. Laguntza-kontratuak, orobat, kontratu guztien ehuneko 42 egiten dute, baina haien zenbatekoa ez da iristen guztira esleitutako zenbatekoaren ehuneko 20ra. Nabarmentzekoa da ezen, erregistroak emandako informazioaren arabera, kontzejuek ez zutela inolako kontraturik esleitu 2014an.

2014an, toki entitateen menpekoak diren enteek eta beste ente batzuek honako kontratu hauek esleitu zituzten:

Kontratu-mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Partzuergoak		Guztira	
	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Laguntza	2	561.378	4	41.697	2	84.196	8	687.271
Hornidura	3	125.016			1	17.237	4	142.253
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>686.394</b>	<b>4</b>	<b>41.697</b>	<b>3</b>	<b>101.433</b>	<b>12</b>	<b>829.524</b>

Nabarmentzekoa da 2014an esleitutako 12 kontratuetatik ehuneko 42k —686.394 euro eta guztizkoaren ehuneko 83— erakunde autonomoei dagozkiela. Gainera, ez zen ez obretarako, ez zerbitzu-emakidarako inongo kontraturik esleitu.

2014an, toki enteek eta haiek parte hartutako erakunde autonomo, sozietate publiko eta partzuergoak 323 kontratu esleitu zituzten, eta kontratu horiek 42,24 milioi euroko prezioa izan zuten guztira.

Hona toki entitateek eta haien mendeko enteek egindako kontratueta baliatutako esleipen-prozedura eta -irizpidea:

	Prozedura irekia.			Prozedura negoziatua			Prozedura murriztua	Guztira
	Eskaintza onena	Preziorik merkeena	Daturik ez	Eskaintza onena	Preziorik merkeena	Daturik ez	Eskaintza onena	
Laguntza	73	9	-	42	14	1	1	140
Obrak	33	13	1	59	23	-	1	130
Hornidura	24	3	-	8	3	-	-	38
Zerbitzu-emakidak	15	-	-	-	-	-	-	15
<b>Guztira</b>	<b>145</b>	<b>25</b>	<b>1</b>	<b>109</b>	<b>40</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>323</b>

Kontratuen ehuneko 53 esleitu zen prozedura irekiaren bidez; kasuen ehuneko 85ean eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatu zen, eta gainerako ehuneko 15ean, berriz, preziorik merkeenarena. Halaber, kontratu guztien ehuneko 46 prozedura negoziatuaren bidez esleitu zen; kasuen ehuneko 73an eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatu zen, eta gainerakoetan, berriz, preziorik merkeenarena.

Azkenik, esleitutako 323 kontratuetatik, zazpi obra-kontratu 600.000 eurotik gorakoak ziren; bi hornidura-kontratu 400.000 eurotik gorako prezioan adjudikatu ziren; eta bederatzi laguntza- eta bost lagapen-kontratu 150.000 eurotik gorakoak izan ziren. Hona zenbatekoari erreparatuz gero garrantzitsuenak diren kontratu horien esleipenaren zenbatekoa:

Kontratu-mota	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Obrak	7	12.851.082
Laguntza	9	4.423.323
Zerbitzu-emakidak.	5	2.447.190
Hornidura	2	2.829.545
<b>Guztira</b>	<b>23</b>	<b>22.551.140</b>

## VII. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO TOKI ENTITATE GARRANTZITSUENI APLIKATZEKOAK ZAIZKIEN AKORDIO ETA HITZARMEN KOLEKTIBOEN AZTERKETA JURIDIKOA

Nafarroan biztanle gehien dituzten udalen fiskalizazioa eginda, Ganbera honek aurkitu du toki entitate horietako langileei aplikatzekoak zaizkien akordio eta hitzarmen kolektibo batzuk badaudela, eta litekeena dela horien edukiak toki entitate horiek berezko duten negoziatorako esku-men-esparrua gainditzea.

Langileei aplikatzekoak zaizkien akordio eta hitzarmen kolektiboen azterketa juridiko bat egin dugu, biztanle gehien dituzten toki entitateen lagin bat hartuta; honako hauek dira: Iruña, Tutera, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Eguesibarra.

Akordio kolektiboek kasuko udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituzte; kasuren batean, lan-kontratupeko langileak ere sartzen dira. Bestetik, hitzarmen kolektiboek kasuan kasuko entitatearen lan-kontratupeko langileen lan-baldintzak arautzen dituzte.

Gainera, funtzionarioen estatutu juridikoa haien oinarrizko lan-baldintzak ezartzen dituzten legeetan eta araudian araututa dago, beren eginkizunak zuzen betetzen dituztela ahal den guztian bermatze aldera. Estatutu hori bat dator Konstituzioko 103.3 artikuluan ezarritakoarekin, non ezartzen baita "*legeak arautuko duela funtzionario publikoen estatutua*". Horrek, izan ere, nabarmen mugatzen du negoziatzeko gaitasuna, bai Administrazioarena, bai funtzionarioarena, halako puntu bateraino non azken horrek legez edo erregelamenduz aurrez ezarritako eskubideak eta betebeharrak izanen dituen, Administrazioak haiek arauetan ezarritakoaz haratago zabalteko edo hedatzeko aukerarik eduki gabe.

Aurrekoa kontuan hartuta, egindako azterlanetik honako ondorio hauek atera behar ditugu:

- Funtzio publikoaren esparruan, negoziazio kolektiboak esan nahi du administrazio publikoetako enplegatuen lan-baldintzak zehazterakoan negoziatzeko eskubidea izatea.

Langile publikoek negoziazio kolektiborako eta beren lan-baldintzen zehaztapenean parte hartzeko duten eskubidea aitortuta dago bai Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan, bai Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan.

- Alde nabarmenak daude langile funtzionarioen negoziazio kolektiboaren eta lan-kontratupeko langileen esparru berekian gertatzen denaren artean.

Funtzionario publikoen lan-baldintzak funtzio publikoaren estatutuen bitartez arautzen dituen sistema espainiarra oso sistema legezkatuta da, ia diskrezionalitaterik ez duena; aitzitik, lan-kontratupeko langileen lan-baldintzak tradizionalki itunen askatasunaren esparrura eraman izan dira, enplegatailearen eta enplegatuen arteko negoziazioaren bitartez, horiek esparru publikokoak nahiz pribatukoak izan.

Auzitegi Gorenak argi ezarri izan du behin eta berriz legeek funtzionario publikoei aitortutako eskubideek ez dutela, eta hala gertatzen da lan-kontratupeko langileen kasuan, hobe-tzeko moduko gutxienekoaren izaerarik, baizik eta legezko edo erregelamenduzko baldintza finkoak, negoziazio kolektiboaren bitartez ezin alda daitezkeenak.

Izan ere, lan-esparruan ezar daitezkeen printzipio orokorra da arau erregulatzailerak, kontrakoa berariaz ezartzen ez bada, gutxienekoen arauak direla eta, horrenbestez, ez dutela eragozten haiek direla-eta hobekuntzarik negoziatzea. Aitzitik, funtzionario publikoen araubide erregulatzailerak, oro har, aginduzko arau absolutuek osatzen dute, eta arau horiek, horrenbestez, ez dira negoziagarriak.

- Nafarroako Auzitegi Nagusiak berriki emandako epaietan aipatu izan du Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legea araubide juridikoa determinatzen duten arauak direla, toki entitateek langileen arloan erabili behar dituztenak, eta itunak ezin dituela arau horiek aldarazi.

Ildo beretik, Nafarroako Auzitegi Nagusiak dio ezen Nafarroako administrazio publiko bakoitzak eskumena duela bere zerbitzuko langileen araubidea ezartzeko, estatutuan eta hura garatzen duten erregelamenduetan ezarritakoari jarraituz, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren 4. artikulua ezarri bezala. Horrenbestez, aurreikuspen horrek



eskatzen du, halaber, erregelamendu-arauak errespetatu daitezzen. Arau horiek, izan ere, aginduzkoak dira, eta ez dute gutxienezkoen araubide bat jasotzen.

Doktrina hori aplikatuz, Nafarroako Auzitegi Nagusiak zati batean ezeztatu ditu, eta soilik langile funtzionarioei dagokienez, Tuterako Udalaren eta Eguesibarko Udalaren akordio kolektiboak.

- Aztertutako akordio kolektibo horiek tokiko esparrukoak dira, eta langile publikoen lan-baldintzen alderdi batzuk arautzen dituzte: ordainsariak, lanaldia eta lan-ordutegiak, lizentzien araubidea, opor eta baimenak, ekintza sozialerako laguntzak, lanbide-sustapena eta langileen hautatzea, prestakuntza eta abar.

Akordio horiek aztertuta, zenbait klausula aurkitu ditugu toki enteen xedapen-ahalmena betetzen dutenak eta eskumena duten gaiei buruzkoak direnak: ordainsari osagarriak, urteko lanaldiaren banaketa eta lan ordutegiak, gizarte laguntzak, oporren banaketa, zenbait baimen eta lizentziaren zehaztapena eta abar.

Beste klausula batzuek, ordea, aztertutako jurisprudentziari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa gainditzen dute eta, horrenbestez, toki entitateek beren eskumenen esparrua edo/eta xedapen-ahalmena gainditu dute klausula horiek akordio horietan sartzerakoan. Honako hauek dira, besteak beste: legez aurreikusi gabeko ordainsariak; baimenak zabaltzea eta erregelamenduan aurreikusitakoek beste baimen batzuk ematea, eta osasun gastuen itzulketa, Gizarte Segurantzaren araubidearen osagarri den estaldura gisa, nahiz eta legez halakorik aurreikusi ez.

Arlo hauek edo lege-erreserbaren pean daude eta, horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak baizik ezin ditu zehaztu behin betiko moduan, edo Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak dira, eta, horrenbestez, haren onespenera eta izapidetzea eskatzen dute, aurretik Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen mahai orokorrean negoziatuta.

- Udal batzuek beren lan-kontratupeko langileen lan-baldintzak arautzen dituzten hitzarmen kolektiboak onetsi dituzte kasuko entitateko funtzionarioekiko akordio kolektiboetan ezarritakoaren antzera. Hitzarmen horiek, lege-erreferentzia gisa Langileen Estatutua dutenez, hobekuntzak sar ditzakete lehendik araututakoaren gainetik, eta, horrenbestez, langile funtzionarioentzat gehigizko gertatzen diren klausula berak, legezko araupetzetik kanpokoak izateagatik, baimenduta egon litezke lan-kontratupeko langileentzat.

Tuterako eta Eguesibarko udaletako akordio kolektiboaren kasuan, zeinek eragina baitute bai langile funtzionarioengan, bai lan-kontratupeko langileengan, Auzitegi Nagusiak akordio kolektibo horiek zati batean ezeztatu ditu, eta soilik langile funtzionarioei dagokienez. Hala eta guztiz ere, akordio horiek indarrean jarraitzen dute lan-kontratupeko langileentzat. Horrek eragiten du udal berean langile funtzionarioek eskubidea izatea lizentzien eta baimen soldatadunen araubide baterako, eta, aldi berean, lan-kontratupeko langileek araubide aldekoagoa izatea.

- Amaierako gogoeta gisa, kontuan hartu behar dugu ezen modu baliogarrian amaitutako akordio eta hitzarmen kolektiboek aldeak behartzen dituztela eta haietarako norainoko arautzailea dutela, eta, horrenbestez, antolamendu juridikoan txertatzen diren arauak direla, udala zein langileak behartzen dituztenak.

Akordio edo hitzarmen kolektibo indardun horiek betearazteko emandako egintza administratiboak baliogarritzat eta eraginkortzat jo behar dira, eta akordio edo hitzarmen horiek izan dezaketen legez aurkakotasuna administrazioarekiko auzien jurisdikzioan alegatu beharra dago, akordioaren kasuan, eta lan arloko jurisdikzioan, berriz, hitzarmenen kasuan, edo, bi jurisdikzio horien aurrean baldin eta langile funtzionarioengan eta lan-kontratupeko langileengan eragina duten akordio edo hitzarmenak badira.

Gainera, akordio edo hitzarmen kolektibo bat epaitegiek deuseztatzen badute, kontuan hartu beharra dago haiek deuseztatzen dituzten epai irmoek ez diotela berez eraginen deuseztapenak eragin orokorrak lortu baino lehen manu hura aplikatu duten administrazio egintza irmoen eraginkortasunari.

Hori dela eta, baliogarriak eta eraginkorrak izan baina funtzio publikoaren estatutuaren aurkakoak diren arauak egon daitezzen saihesteko, garrantzitsua da funtzionario publikoen lan-

baldintzen negoziazio kolektiboan errespetatu daitezela legezkotasunaren eta aurrekontu-estalduraren printzipioak, nahitaezkotasunaren, negoziatzeko fedea onaren, publizitatearen eta gardentasunaren printzipioez gainera.

Bestetik, arestian aipatu den bezala, langile funtzionarioei eta lan-kontratupeko langileei aplikatzekoa zaien araubide juridiko desberdina izateak planteatzen duen gaietako bat da hitzarmen kolektibo batean aukera ematen dela erregulazio orokorraz gaineko hobekuntzak ituntzeko, zeinak ez bailirateke onargarri izanen langile funtzionarioentzat.

Gai horri konponbidea emateko aukeretako bat izanen litzateke administrazio publiko bakoitzeko langile funtzionarioentzat, estatutupeko langileentzat eta lan-kontratupeko langileentzat komunak diren arlo eta lan-baldintzak negoziatzeko negoziazio mahai orokor bat eratzea, bai Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, bai kasuan kasuko toki entitateen esparruan, kasuko eskumen-araubidearen arabera, halako moduz non langile funtzionarioentzat eta lan-kontratupeko langileentzat amankomunak diren gai eta baldintza orokorrei buruzko itun eta akordioak lortu ahalko diren; izan ere, itun eta akordio horiek funtzio publikoaren estatutuan ezarritako izaera eta eraginak izanen lituzkete funtzionarioentzat, eta langileen estatutuan ezarritakoak lan-kontratupeko langileentzat. Hau da, lan-baldintza amankomunak dauden kasuetan, akordio kolektibo berdinekin eta eragin berdinekin dituztenak lortu ahalko lirateke langile guztientzat.

Halaber, negoziazioan jaso litezke Nafarroako toki entitateetako langile guztientzat komunak diren baldintzak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak modu argiagoan jasotzen ditu negoziazio aukera horiek, zeinak Nafarroako Foru Komunitatean aplikatu litezkeen, betiere kontuan hartuta tokiko autonomiaren printzipioak eta negoziazio kolektiboaren eraginkortasun orokorra, ordezkari handiena duten erakundeekin bitartezkoa.

### VIII. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Honako hauek dira 2014an toki sektore publikoak izan duen antolamenduari, fiskalizazioari eta egoera finantzarioari buruzko ondorio nagusiak:

- Toki sektore publikoa 703 toki entitatek osatzen dute: 272 udal, 347 kontzeju, 65 mankomunitate eta 19 udal-batasun. Toki ente horiek 128 menpeko ente sortu dituzte zerbitzuak emateko, eta 15 partzuergotan parte hartzen dute.

Oraindik ere bere horretan dirau Nafarroako Toki Administrazioaren antolamenduegituraren berrantolatze faltaren arazoak; izan ere, egitura horrek herritarren egungo eskakizunak eta zerbitzuak ematerakoan kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorrak uztartu behar ditu.

- Nabarmendu nahi dugu kontuak emateko betebeharra dela-eta gertatu den betetze-maila handia; izan ere, ia toki entitate guztiek betetzen dute betebeharrak. Hartara, udalen ehuneko 99k —haien populazioak guztizkoaren ehuneko 100 egiten du— eta kontzejuen ehuneko 87k —biztanle guztien ehuneko 96— 2014ko kontu orokorra igorria zuten.

- 2014an, 15 toki entitate fiskalizatu ziren. Horien artean, Nafarroan biztanle gehien dituzten 11 udalak daude. Fiskalizatutako 15 toki entitateen diru-sarrerak eta gastuek Nafarroako toki sektore publiko osoaren diru-sarreraren eta gastuen ehuneko 47 eta 48 egiten dute eta haien populazioak guztizkoaren ehuneko 59 hartzen du 2014ko urtarrilaren 1ean.

Fiskalizazioetan aurkitutako akats nagusiak honakoei buruzkoak izan dira: inbentario baloratu eta eguneraturik ez edukitzea eta aurrekontua ezarritako epeetan ez onestea; azken horien arrazoa, batzuetan, izan daiteke organo eskuduneko kideak elkarrekin ados ez egotea.

- Egoera finantzario bateratuari dagokionez, 2014an diru-sarrera eta gastu guztiak ia 2013an bezalaxe mantendu ziren: lehenengoen ehuneko 0,6 egin zuten gora eta bigarrenak, berriz, ehuneko 0,7 behera. Jaitsiera-portzentaje hori ehuneko 20koa baino zertxobait handiagoa da, 2010eko datuekin alderatuz gero.

Aurrekontuko gastu eta diru-sarrera garrantzitsuenen osakerari dagokionez, funtzionamendu-gastuak 583,79 milioi eurora iritsi ziren; hau da, 2010ean baino ehuneko bat txikiagoak dira eta 2013koak baino ehuneko 0,1 handiagoak. Bestetik, tributu bidezko diru-sarrerak 348,78 milioira iritsi ziren, eta ehuneko hiru eta ehuneko 1,3 egin zuten gora 2010ekoen eta 2013koen aldean.

Toki sektore publikoak 56,02 milioi euroko emaitza ez-finantzarioa eta 70,89 milioiko aurrezki garbia lortu zituen, bai eta gastu orokorretarako 169,07 milioiko diruzaintza-gerakina ere.

2014ko zor bizia 336,76 milioi eurokoa zen, eta toki enteek beren diru-sarrera arrunten ehuneko 10,22ra bitarteko zorpetze-ahalmena zuten.

Tokiko sektore publikoak aurrezki garbia lortu zuen eta aurreko ekitaldietako zorpetze-gaitasuna eta diru-baliabideen gaitasuna izan zuen.

Gainera, 29,01 milioi euroko finantza-ahalmena lortu zuen eta zor bizia diru-sarrera arrunten ehuneko 48,55 egiten zuen, legez ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

Azken batean, toki sektore publikoaren egoera ekonomikoa saneatua da, eta adierazle ekonomiko-finantzario guztiek aldeko bilakaera erakusten dute; halere, gastu ez finantzarioak egiteko eta zorpetzeko muga batzuk badaude, finantza-egonkortasuneko eta -iraunkortasuneko helburuek ezarritakoak. Toki sektore publikoa, bere osotasunean, helburu horiek bete egin zituen 2014ko ekitaldian. Halaber, aztertu beharko litzateke nolako eragina izan duen adierazle horien bilakaerak kontratazioen kopuruan eta, horrenbestez, emandako zerbitzuen kantitatean eta kalitatean.

- Nafarroako Tokiko kontabilitatea Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren arabera araututa dago. Plan egokitu hori 1990eko uztailaren 17ko Ministerio

Aginduaz onetsi zen. Ez da araurik eman toki entitatearen eta haren menpeko enteen kontabilitatearen egoera-orriak bateratzeari buruz.

Gaur egun, lantalde batzuk eratu dira toki administrazioaren arloko eskumenak dituen departamentuan, toki esparruaren kontabilitatearen erreforma aztertzeko.

- Udal batzuen langin bateko langileen hitzarmen eta akordio kolektiboei buruz egindako azterketa juridikotik eratoritzen da ente batzuen eta besten arteko aldeak egon daitezkeela langileen lan-baldintzei dagokienez, eta, gainera, entitate berean aldeak egon daitezkeela langile batzuen eta besteen artean, funtzionarioak ala lan-kontratupeko langileak izan.

Honakoak dira Ganbera honek Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari egi-ten dizkion gomendioak:

- *Nafarroako Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurri legegileak eta administratiboak lehentasunez eta premiaz hartzeko hasitako prozesuak amaitzea, toki entitateek beren zerbitzuak eraginkortasunez, merke eta kalitatez eman ditzaten eta helburu horretarako giza baliabideak eta baliabide finantzarioak izan ditzaten.*

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan dute eragina; hori dela eta, adostasuna lortzen saiatu behar da, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz, eta lidergo politiko-instituzionala gauzatuz neurri horiek inplementatzean.

- *Tokiko kontabilitatea berritzea eta Kontabilitate Publikorako Plan Orokor indardunera egokitztea*

- *Toki entitateen eta horien merkataritza-sozietate publikoen kontularitza-egoerak sendotzeko metodologiari buruzko legezko neurri egokiak hartzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeko bigarren xedapenean Nafarroari eskumenak esleitze aldera ezarritako arau-garapenei ekitea.*

- *Behar diren araudia eta prozedurak ezartzea Foru Administrazioak bete behar duen tutoretza finantzarioa bete ahal dadin, Foru Komunitateko toki entitateei Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzeari dagokionez.*

- *Toki administrazioaren arloko departamentu eskudunaren web-orrian argitaratzea toki entitateek kontuak emateari eta haien edukiari buruzko informazioa argitaratzea, Gardentasunari buruzko Legea betetze aldera.*

- *Toki entitateen erregistroa gaurkotzea sozietate publikoei eta tokiko fundazioei buruzko informazioarekin.*

- *Toki entitateek kontuak emateko duten legezko betebeharra betetzen dela bermatzeko tresnak sendotzea, araudian ezarritako epean.*

- *2/1995 Legearen edukia, ibilgailuen zirkulazioari dagokionez, gaurkotzeko aukera aztertzea, egungo testuingurua kontuan hartuta, gas kutsakorren emisioari dagokionez, ibilgailuen flotari eta haien potentziari dagokionez eta abarrei dagokienez. Halaber, tokiko tributua sistemaren gainerakoa berrikustea, gaurkotu behar bada ere.*

Toki entitateentzako aholkuak:

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*

- *Erakunde autonomoen eta udal merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomikoaren barne-kontrola egitea, aplikatzeko zaion legedian ezarritako hedapenarekin, hau da, kontu-hartzailetzaren, finantzen eta eraginkortasunaren hiru ikuspegietatik.*

- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa sortzea eta bertan sarrerak eta irteerak modu justifikatuan sartztea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko*

*35/2002 Foru Legean ezarritako helburuetarako, eta lurzoruaren udal ondarea kudeatzea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik.*

- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*

- *Akordio eta hitzarmen kolektiboen legezotasunaren gaineko behar den kontrola egitea administrazio-organo eskudunak haiek onetsi baino lehen.*

- *Gaur egun Toki Administrazioan zerbitzu publikoen kostuen metodologia hobetzen jarraitzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*

- *Aurrekontua eta kontu orokorra ezarritako epeetan onestea. Halaber, kontu orokorra onestea zuzen formulaturik baldin badago. Onesten ez bada, kontu horrek kudeaketa ekonomikoa ez islatzeko arrazoiak eman beharko dira.*

- *Balorazio-ponentzietarako epea gaurkotzea.*

- *Probetxua ateratzea Toki Administrazioko Departamentua tokiko entitateen plantilla organikoak direla-eta egiten ari den lanari, plantillaren dokumentu normalizatu bat ezarri ahal izateko.*

- *Eginkizun iraunkorrei erantzuteko aldi baterako kontratazioak egin daitezzen saihestea, araudiak hori bideratzen duen guztietan.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

## 1. ERANSKINA TOKI ENTITATEEI 2014KO EKITALDIAN APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

Toki administrazioaren eta -arabidearen arloan eta ekonomia-, aurrekontu- nahiz kontabilitate-arabidearenean aplikatzekoak dira:

- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzekoak.

- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

- 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako

- 3/2012 Foru Legea, martxoaren 14koa, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

- 22/2013 Legea, abenduaren 23koa, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa.

- 4/2013 Foru Legea, otsailaren 25ekoa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzen duena.

- 10/2013 Foru Legea, martxoaren 12koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, Administrazio publikoen berankortasunaren aurkako neurri urgenteei eta finantza-arazoak dituzten toki entitateei laguntzeari buruzkoa.

- 25/2013 Foru Legea, uztailaren 2koa, Erosahalmenaren galera dela-eta 2012rako eragina-ekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duena.

- 31/2013 Foru Legea, urriaren 31koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituena.

- 37/2013 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.

Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.

- Kontratazio administratiboaren alorrean, ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoari buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean zehaztutako berezitasunekin.

- Langileen arloan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, eta hura garatzeko arauak; halaber, abenduaren 26ko 26/2012 Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

- Hirigintzaren arloan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

- Diru-laguntzen arloan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

Horrez gainera, toki sektore publikoari aplikatu beharreko ondoko arau aipagarriak onetsi ziren 2014an zehar:

- 11/2014 Foru Legea, urtarrilaren 15ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena
- 1/2014 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 24koa, Azpiegituren eta garraioaren arloko erreformari eta beste neurri ekonomiko batzuei buruzkoa.
- 3/2014 Legea, martxoaren 27koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren testu bategina aldatzen duena.
- 12/2014 Foru Legea, ekainaren 18koa, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen duena
- 14/2014 Foru Legea, ekainaren 18koa, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena
- 15/2014 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena
- 17/2014 Foru Legea, irailaren 25ekoa, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituena 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako
- 20/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko
- 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituena.
- 23/2014 Foru Legea, abenduaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena
- 36/2014 Legea, abenduaren 27koa, Estatuaren 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 2/2014 Foru Lege-dekretua, abenduaren 29koa, zeinaren bidez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira.
- 28/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, Tributu-neurriei buruzkoa

